

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA NAGUSI DUTEN FUNDAZIOEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2006**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun, eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Euskal Sektore Publikoaren Administrazioak nagusi dituzten fundazioen fiskalizazio lana mamitu du. Txostena HKEEren osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Lanaren mamia ondasun erosketa eta zerbitzuei, langileen kontratazioari eta ondasun eta zerbitzuen erosketari ezargarria zaion legezketasuna 2006ko ekitaldian zehar bete den aztertzea izan da.

Fiskalizazio-gai izan diren fundazioetan partaidetza du Euskal Autonomia Erkidegoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten administrazioak nagusi dira; alegia, ekarpen gehienbat publikoaren bidez eratutako fundazioak dira, edo sorrerako ondarearen % 50 baino gehiago (irauteko asmoarekin) erakunde publikoek emandako ondasun edo eskubideez osatuta dutenak. Hona hemen fundazioen zerrenda 2006ko abenduaren 31n:

- Donostia International Physics Center Fundazioa
- EKAIN Fundazioa
- Euskadiko Filmategia Fundazioa
- Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea Fundazioa
- Itsas eta Elikagaien Zentru Teknologikoa Fundazioa-AZTI
- Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa-EGO
- Kalitatea Fundazioa
- Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa
- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- Makina Erreminta Arloko Prestakuntza Teknikorako Fundazioa
- Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiaren Fundazio Pribatua
- Osasun Berrikuntza eta Ikerketarako Eusko Fundazioa-BIOEF
- Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa-HOBETUZ
- Nekazaritza Elikagaien Segurtasuneko Euskal Erakundea-ELIKA

Legea betetzeari dagokionez, Epaitegiak fundazio bakoitzari dagokionez txostenean azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu, ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik.

Ondasun eta zerbitzuen erosketen atalean azaleratu diren hutsak gehienbat esleipenetan publizitate eta/edo lehia ezari dagozkio eta HKEEk ondorioztatu du atal honetan jaso diren fundazioek ez dutela ezargarria zaien lege-araua bete 2006ko ekitaldian.

Fundazioek gauzatutako langileen kontratazioa aztertzean, HKEEk azaleratu dituen hutsik adierazgarrienak nagusiki berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ez bete izanari dagozkio; honela, bada, HKEEk ondorioztatu du atal honetan aipatutako fundazioek ez dutela 2006ko ekitaldian lege araudia bete.

Txostenean aztergai izan diren fundazioen 2006ko abenduaren 31ko urteko kontuak jaso dira eta HKEEk barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen egin ditu. Azkenik, Txostenari hainbat Eranskin argigarri txertatu zaizkio.